

BALIO PROPOSAMENA

Ekinazpi aplikazioaren helburu nagusia Erasmus ikasleei ostatu seguru, eskuragarri eta malgua aurkitzea erraztea da, ikasleak, etxebizitzaren jabeak eta unibertsitateak plataforma digital baten bidez zuzenean konektatuz. Logelaz logela alokairua sustatuz, atzerrian ikasteko garaian sortzen diren etxebizitza-arazoak murriztu nahi dira, eta aldi berean kultura-arteko integrazioa eta tokiko biztanleen eta ikasleen arteko bizikidetzaren bultzatu, mugikortasun akademiko jasangarriagoa lortzeko.

Plataformaren bidez, ikasleek aldi baterako ostatu duin eta egokituak aurkitu ahal izango dituzte, eta etxebizitzaren jabeek edo trukaketa egin nahi duten pertsonak beren etxeak modu erraz eta antolatuan eskaini ahal izango dituzte. Gainera, unibertsitateek ere aplikazioa erabil dezakete beren ikasleei ostatu aukerak gomendatzeko, horrela nazioarteko mugikortasuna erraztuz.

Gure balio proposamena ez da soilik etxebizitza bilatzea erraztea, komunitatea sortu nahi dugu ere. Aplikazioak kultura-arteko harremanak sustatzen ditu, tokiko biztanleen eta atzerriko ikasleen arteko integrazioa bultzatuz: gure aplikazio barnean dagoen chat-aren bidez, ikasleek komunikazio zuzena izango dute joango diren atzerriko herriko beste ikasle batzuekin, bertan kontaktuak izateko eta integrazioa hobeagoa izateko. Honen bidez ikasleen esperientzia pertsonala eta akademikoa hobetzen da, eta hiri hartzaileetan bizikidetzaren aberatsagoa sortzen laguntzen du. Horrez gain, erabiltzaileek aseguruak eta zerbitzu osagarriak topatuko dituzte, haien esperientzia errazagoa eta seguruagoa izateko helburuarekin. .

Proiektu hau 2030eko Garapen Jasangarriko 11. Helburuarekin (Hiri eta komunitate jasangarriak) zuzenean lotuta dago, izan ere, etxebizitza eskuragarriagoa eta eraginkorragoa sustatzen du, jada dauden etxebizitzak dagoen hobeto aprobetxatuz eta aldi baterako egonaldiaren kudeaketa jasangarriagoa eginez. Horrez gain, ikasleen mugikortasun arduratsua bultzatzen dugu Ekinazpin.

Gure aplikazioa logelaz logela alokairuan oinarritzen da, batez ere Erasmus ikasleen beharretara egokituta. Lehenik, Erasmus ikasleek aplikazioan erregistratu eta profil pertsonal bat sortzen dute. Bertan, beren egonaldiaren iraupena, aurrekontua, helmugako hiri eta lehentasunak adierazten dituzte. Horri esker, aplikazioak ikasle bakoitzari egokitzen zaizkion logelak erakutsi ahal dizkio.

Bestetik, etxebizitzaren jabeek edo etxe partekatuan bizi diren pertsonak beren etxebizitzako logelak plataforman argitaratzen dituzte. Iragarkietan logelaren ezaugarriak zehazten dira: prezioa (hau da, balio duten puntuak kokapena, erabilgarri dagoen denbora, etxeko arauak eta zerbitzuak (wifi, altzariak, etab.). Gainera, pisua zenbat pertsonekin partekatzeko aukera izango duzun ikusi ahal da, hori logela eta ohearen arabera da. Horrek gardentasuna eta konfiantza handitzen ditu.

Aplikazioak bilaketa eta iragazki sistema erraza eskaintzen du, ikasleek behar duten logela azkar aurkitzeko. Behin ikasleak logela bat interesgarritzat jotzen duenean, plataformaren bidez harremanetan jar daiteke jabearekin, eta alokairuaren baldintzak adostu.

Aplikazioak puntu sistema baten bidez funtzionatuko du, Europako herrialde askotan, Espainian, adibidez, azpialokatzea debekatuta dagoelako. Horrela gure aplikazioaren arrakasta segurtatzen dugu. Erabiltzaileek logela edo etxebizitza bat eskaintzen dutenean, puntuak lortzen dituzte, eta puntu horiek beste hiri edo herrialde batean ostatu hartzeko erabili ahal izango dituzte. Puntu kantitatea desberdina izango da, eskainitako etxearen arabera (kokapena, tamaina, unibertsitateekiko hurbiltasuna...) Modu honetan, trukea eta elkarlana sustatzen dira, eta ostatuaren kostua merkeagoa eta bidezkoagoa bihurtzen da Erasmus ikasleentzat.

Plataforma erabili ahal izateko, erabiltzaileek 200 €-ko ordainketa bakarra egin beharko dute harpidetza moduan. Ordainketa honek aplikaziorako sarbidea, puntu sistemaren erabilera, ordainketa seguruak, erabiltzaileen egiaztapena eta bezeroarentzako arreta barne hartzen ditu. Sistema honi esker, komunitate fidagarri bat sortzen da, iruzurrak saihesten dira eta aplikazioaren jasagarritasun ekonomikoa bermatzen da.

Hona hemen gure aplikazioaren krokisa:

The wireframe illustrates the Ekinazpi application interface. At the top, the title 'Ekinazpi' is followed by navigation links: 'Bilatu logela', 'Etxea eskaini', and 'Unibertsitateak'. A 'SAIOA HASI' button is positioned on the right. Below this is a descriptive line: 'Aurkitu zure logela Erasmus programarako ostatu seguru eta eskuragarria zure zain!'. The main search area contains four input fields: 'Bilbo' with a dropdown arrow, 'Sarrera 07/01/2026' with a dropdown arrow, 'Itzera' with a dropdown arrow, and 'AurreK: 400€ max' with a dropdown arrow. A 'BILATU' button is located to the right of these fields. Below the search section are three large buttons: 'ETXEBIZITZAK BILATU', 'ZURE ETXEA ESKAINI', and 'UNIBERTSITATEEN ATALA'. A section titled 'Nola dabil?' contains four buttons: 'Sortu zure profila', 'Bilatu eta erreserbatu', 'Ordaindu segurtasunet', and 'Bizitza eta kultura partekatu'. At the bottom, a section titled 'Ikasleen iritziaK' features a quote: '« Logela aurkitzea oso erraza izan zen! Jabearekin eta konexioarekin oso pozik nago. »' followed by the text 'Marta, Alemaniara joandako ikaslea'.